

INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN XIV. JARDUNALDIAK

Irailaren 7 eta 8rako trikiti jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan.

Aurten, atzera begira jarri eta lehenengo urteko jardunaldietako gaiari heldu zaio berriz ere: "Trikitixaren oraina eta geroa".

- Irailaren 7an, asteazkenean, 19:30etan, **Pako Aristiren** hitzaldia izango da.

EUSKAL KULTURA LEGITIMAZIOAREN BILA:

"Sormenaren esparruko edozein adierazpide artistiko bezala, trikitixak ere badu bere ekosistema, bizirik irauten laguntzen diona: euskal kultura. Hau, ordea, ez da kultur sistema estandarra, ez daukalako botere sistema propio bat atzean, legitimazioa emango liokeena. Kultura hegemoniko espainol eta frantsesaren azpi-zatia da euskal kultura, eta hortik datozkio aje nagusiak: ikusezin izatea, hierarkia falta, erreferente ez izatea eta definizio falta. Kultura oro prozesu sozio-politikoa da, eta historikoa ere bai. Honek munduan nola funtzionatzen duen aztertuko dugu, gurean nola funtziona zezakeen irudikatu dezagun".

- Irailaren 8an, ostegunean, 19:30etan, mahai-ingurua **Gotzon Barandiaran, Juan Carlos Perez eta Mikel Markezekin**. Moderatzailea **Juan Luis Zabala** izango da.



Pako Aristi (Argazki Press)

TRIKITIXA, KANPOTIK BAINA GERTUTIK:

"Trikitilariak izan gabe ere, beren jardunetan trikitixa ondo ezagutzen dutela erakutsia dute Juan Carlos Perezek, Mikel Markezek eta Gotzon Barandiaranek. Kanpotik bada ere, gertutasun horretatik begiratuta, trikitixarekin izan duten eta duten loturaz ez ezik, trikitixaren orainaz eta geroaz mintzatuko zaizkigu hirurak mahai-inguru batean, gaiari ikuspuntu askotatik helduta: formatuak, diskoak, plazak, irakaskuntza eta transmisioa..."

KRISTINA EZAGUTUZ, HAMAIA KONTUZ!

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?
Hernaniarra, umoretsua, gauza txikiekin gozaten duena.

Nolatan txoratu zintuen trikitiak?
Etxean aita oso trikitizalea izan da eta berak animatu ninduen. Denborarekin zaltetzen joan nintzen...

Hainbat txapelketa eta erromeri egin-dakoak zarete... Ze oroitzapen gorde-tzen dituzu?

Oso onak! Bereziki sortutako lagunartea...

Nola uztartzen dira erromeriak eta familia?

Familia izatea erabaki nuenean irakaskuntzan zentratu nintzen, erromeriak egiteari utzi nion. Badakit ama trikitilari askok erro-meriatan jarraitzen dutela eta asko miresten ditut.

M-n Ezten taldea berriro festarik festa ibiltzea posible litzateke?

Ez, errezagot litzateke Amaia ta Kristina berriro ikustea.

"Beldurak ahaztuta" ibiltzen al zara?

Emakumeak geroz eta indartsuago gaudenez, beldurak ahaz-tuta ez baino beldurak gutxituta lasaiago bizi gara.



Jakin dugu iraila bukaeran Tapia, Leturia eta Amaiarekin Suitzara zoazela. Nolatan? Emanaldi hori Euskal Herrian ikusteko aukerarik ez al da izango?

Tapiak proposatu zigun elkarrekin Txekiara joatea eta gu gusto handiz animatu gara. Eztakit Euskal Herrian aukerarik izango den baino ni prest!

Gorrito duzun zerbait?

Gorrito hitza etzait gehiegi gusta-tzen baina gezurra da gutxien gus-tatzen zaidana...

Eguna edo gaua nahiago?

Egitekoaren arabera biak oso aproposak.

Asteburuko planik ederrena?

Umeekin lasai egotea, astean zehar lanpetuago ibiltzen bai-naiz. Horrekin batera kontzertu edo pelikula on bat ikusteko aukera badago, primeran!

Amets bat?

Ditudan amets txikiak gauzatzen doaz eta amesten jarraitu ahal izatea.

GAZTEEN TRIKITIXA TXAPELKETAK



Argazkia: Ibon Errazu

Urtero bezala uda garaian hainbat trikitixa txapelketa izan dira inguruko herrietan. Jarraian laburtuta ageri dira sailka-penak.

Getariako XVII. Trikitixa txapelketa. 2016-05-28

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta
3. Eider eta Lierni Tolosa

Xanjuandegiko IV. Trikitixa txapelketa. 2016-06-04

1. Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta
2. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe

Orioko VII. Trikitixa txapelketa. 2016-06-29

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta

Elorrioko III. Trikitixa txapelketa. 2016-07-03

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
3. Eider eta Lierni Tolosa

Martindegiko XX. Trikitixa txapelketa. 2016-07-10

1. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
2. Joseba Izagirre eta Sara Iriarte

Zestoako Arrua beheko VIII. Trikitixa txapelketa. 2016-07-17

1. Joseba Izagirre eta Jugatz Oleaga
2. Maite Txapartegi eta Eva Astigarraga

Aiako Trikitilari gazteen txapelketa. 2016-08-07

1. Aitor Uzkudun eta Naiara Urresti
2. Maria Lasa eta Eneritz Aulestia
3. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe

Zizurkilgo XII. Trikitixa Txapelketa. 2016-08-14

1. Iratxe Geresta eta Maddalen Ugalde
2. Maialen Izagirre eta Andoni Izagirre

Zeanuriko XXXVI. Txapelketa. 2016-08-15

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Aitor Uzkudun eta Naiara Urresti
3. Naiara Mantzizidor eta Jugatz Oleaga

Irailan ere izango da txapelketarik: XXXVI. Zarauzko Trikitixa txapelketa ospatuko da Irailaren 7an ilunabarreko 20:30etan Modelo aretoan. Zumaiaiko Artadiko trikitixa txapelketa berriz, irailaren 25ean izango da arratsaldeko 18:00etan.

GEURE KOLKOTIK 2016

Geure Kolkotik bildumako zazpigarren diskoa argitaratuko da aurten. Azken hilabete honetan grabaketa lanak egin dira Iñigo Egiaren (O Brother estudioa) eta Izerren gidaritzapean. 5 trikitilari bikain gonbidatu ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak beraien ekarpena egin dezaten, eta bakoitzak 3 abesti grabatu ditu. Hauek dira partaideak:

- ITSASO ELIZAGOIEN (Nafarroa)
- XABIER ETXANIZ (Gipuzkoa)
- XABIER ABURRUZAGA (Bizkaia)
- ANDER ZABALETA (Araba)
- PATRIK LARRALDE (Iparraldea)



Trikitilari bakoitzak beste hainbat musikari gonbidatu ditu; besteak beste Mattin Arbelaiz, Egoitz Telletxea, Irune Elizagaien, Ainara Saizar, Josune Arakistain, Joseba Urrutia, Irkus Ansotegi, Imanol Zabaleta eta Christian Larralde. Azaroan argitaratuko da diska eta Durangoko azokan izango da kontzertua.

MIRARI ETA AINTZANE: BIDEA HAUSPOTZEN



Aspalditik elkar ezagutu eta jotzen aritzen baziren ere, uztalean kaleratu dute beraien lehen lan luzea; 13 abestiz osatutako diskoa. Estilo ezberdinak uztartu dituzte; hala nola rantxerak, balsak, tango, bolero eta runba bana, fandango arin arinak eta kalejira bat. Hainbat kolaboratzailearen laguntza ere izan dute: Eugenio Gisasola "Lutxurdio" baterian, Eli Andrinua pianoan, Egeni Ubera eta Ander Agirrebeña aho-tsean, Bernardo Aguilera gitarra eta txarangoarekin, Walter Tuzzeo diskoko teknikaria izateaz gain baxua, gitarra, shakerra eta ukelelea jotzen eta azkenik Mireia Agirrebeña eta Lorea Elizburu azalaren eta letren diseinuan. Diskoa Errezilgo Letea jotetxean, Azkoitiko Ixidro Jotetxean, Arrate Irratian, Kantabria jotetxean, Etxebarriko Olaia jotetxean, Barinako Kontzeju Zaharra tabernan, Eibarko Sagarbitza tabernan edota Tirikitraukin eros daiteke 10 eurotan.

XABI ABURRUZAGA: KELTIK

Xabi Aburruzagak bere laugarren diskoa kaleratu du, 14 kantuz osatutako "Keltik" lana. Lehenengo aldiz ekoizpena egitera ere ausartu da oraingoan. Euskal Herritik abiatutako bidaia da Keltik, arima keltiarra duten herrialdeetara joan-etorrikoa. Lan honetarako hainbat kolaboratzaile izan ditu, adibidez Susana Seivane, Anxo Lorenzo, Garikoitz Mendizabal, Javier Perez, Iñaki Aurrekoetxea, Jon Maia eta beste hainbat. Keltiken lehenengo kontzertua irailaren 4ean izango da Getxo folk jaialdian arratsaldeko 20:00etan.



ESNE BELTZA: ESNA2

Ekainaren 14ean aurkeztu zuten Esne Beltza taldekoek Esna proiektuaren bigarren zatia. Lehen aldia izan da lan bat bi zatitan kaleratu dutena; lehenengo zatian 8 abesti daude eta bigarren honetan 7. Jérémie Garat eta Laurent Dupuy ekoizleekin grabatutako lan honetan ere hainbat kolaboratzaile izan dituzte: Laukomako Juantxo, Oreka TX, Band Sound Systemeko Moro, fanfare Ciocarlia, Ms Maiko, DJ Tiho e.a. Hitzei dagokionez, Jon Garmendia "Txuriarenak" dira gehienak.

Iñaki Garmendia Laja eta Ramon Zubizarreta Landakanda

Nola aldatu da trikitia azken urteetan?

Laja: Dantzalekuak irekitzen hasi ziren gero, eta erromerien ohitura galtzen joan zen. Gogoratzen dut Juan Pardo ekarri zutela inguruotara, eta guk Elosiagan (Azpeitia) jotzen genuela. Ez zen kristaurik etorri gugana, denak hura ikustera joan ziren. "Akabo, hemen bukatuko dituk gure lanak!", pentsatu nuen.

Landakanda: Aizpurutxon (Azkoitia), Elosuan, Zelatunen (Errezil) eta Martirietan, txartela jartzen zitzairen mutil dantzariak, eta bi pezeta ordaintzen zituzten. Horrekin pagatzen ziren trikitilariak. Emakumeek libre izaten zuten.

Urola Kostako Hitza: 2016-08-05

Xabi Etxaniz:

Aurreneko aldiz sartu zara estudioan disko baterako kantak grabatzeko. Nolakoa esperientzia izan da?

Egia esan uste baino zailagoa eta luzeagoa izan da. Orain arteko grabazio guztiak etxean nola edo hala egiten nituen, zailtasun gehiegirik gabe. Estudioan sartzean, ordea, musika-tresna bakoitza eta ahots bakoitza banaka grabatu behar izan dugu. Lana bikoiztu egiten da. Bestalde, betirako grabatuta geratuko den sentsazio horrek urduri samar jarri ninduen, baina oso esperientzia polita izan da. (...) Ainara Saizar betidanik nirekin aritu izan da panderoa jotzen. Oso gustuko dut panderoa jotzeko eta abesteko duen modua. Horregatik, aurreneko grabaketa serioa egiteko eskatu zidatenean, garbi nuen Ainara izango zela abesti horien bigarren zatia.

Maxixatzen (Azkoitia): 2016-06-23

Maria Lasa eta Garazi Otaegi

Zergatik eta zertarako osatu zuen Kepa Junkerak Sorginak taldea?

Garazi: Berak esan zigun, trikitiaren historiaren bilduma bat egin nahi zuela. Kepak bere jotzeko modua du eta oso berezia da. Baina jotzeko modu hori nondik datorkion ikertu nahi zuen. Aurreko zaharrei eskaini nahi zien lana; haiek jotako piezak jotzen ditugu, Kepak berak moldatuta.

Maria: Laja, Epelde, Iturbide, Landakanda, Maurizia, Primi Erostarbe..., guzti horiek gogoratu zituen Kepak lehen disko-liburu horretan: Trikitiaren historia txiki bat. Joxean Agirreren testuak, artxiboko irudiak eta testigantzak tartekatzen dira. Gainera, diskorako Landakandak, Lajak eta Iturbidek parte hartu zuten, adibidez. Eta giro horretako jendearekin aritzea guretzako ohore bat izan da.

Tolosaldeko ataria (Zizurkil) 2016-07-21

FABOREZ DISKAK INTERNETEN ESKURAGARRI

Geure Kolkotik diskoekin egin zen bezala Faborez diskoak ere internetera (spotify, itunes...) igoko dira. Publikoki honela jarriko dira eskuragarri: Faborez 01 ekainaren 1ean, Faborez 02 uztailaren 1ean, Faborez 03 abuztuaren 1ean, Faborez 04 irailaren 1ean, Faborez 05 urriaren 1ean, Faborez 06 azaroaren 1ean eta Faborez 07 abenduaren 1ean.

JOXE MARI IRIONDO MENDIZABAL SOINU JOTZAILEA ZENDU DA

Uztailaren 2an zendu zen Joxe Mari Iriondo Mendizabal soinu jotzailea. 1931n Bergarako San Lorenzo auzoan jaio zen, baina gerra hasi ondoren Urretxura joan zen bizitzera. 1950ean aldiz Zaldibarrera ezkondu zen eta bertan egin ditu bere bizitza oparoko azken 66 urteak. Arrate Irratiaren eskariz hainbat grabazio egin zituen 1959an eta 1960an eta bi "single" argitaratu eman zituen Columbia diskoetxearen eskutik Benito Osa pandero-jolea lagun zuela. Soinu jotzaile izateaz gainera, trikitiaren txapelketetako epaimahaikide izan da urte askotan. Zaldibarko Gazte Txapelketaren bultzatzaile esanguratsuen izan delarik, txapelketa horretan nahitaez jo beharreko piezen sortzaile izan zen.

LABIRINTOA

Ondorengo labirinto honetan lagun iezaiozu trikiti eta panderoari elkar topatzen.

